

LO! LO...!¹



(ON SERAPIO MUXIKA NERE ADISKIDEAREN SEME JOSECHORI)

Zeñek egiten dizu maitia?
Zer dira antsi-negarrak?
Kontu gero gure aurrari
Galazi algara-farrak.
Ez, ez dute gau illunean
Diz-dizaratzen izarrak
Iñoiz garbi eta geiago
Añ zure malko goiztarrak.

Oi!... begira aitak gañera
Zer dizkitzun gaur ekarri...
Tira... askatu fardela ta
Errenkaran danak jarri;
Zaldi.... chakur... eta bildochak
Loturik danak alkarri...
.....!
Iño! iño!... etzaitzela
Asi orrelako larri!

Nai dezu emen, aitachoren
Onla, belaun gañian
Jolasian balantza egiñik
Zaldizkoaren antzian
Eta batera eta bestera
Galope bizi-bizian...?
.....
Ori ere ez? iño maitia
Ara pi-pi kayolian.

Zaute isillik! danok geldirik!
Ez aldezute ikusten
Lo-lo gozoak gure aurra
Nola iya artu duben?
O! Jauna zer ederra dagon!
Begira ez naiz aspertzen!
Eta onela, onela, zer
Gauzak dizkiran oroitzen!!

FRANZISKO LOPEZ ALEN.

(1) Lo-lo doñuban kantatzeko.